

ARABAKO FORU ALDUNDIA

DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak**Decretos Forales del Consejo de Diputados*

3052

3052

39/2007 FORU DEKRETUA, apirilaren 24ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoa mende-kotasun egoera onartzeko prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak arautzen dira.

DECRETO FORAL 39/2007, del Consejo de Diputados de 24 de abril, que regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y el acceso a los servicios del sistema para la autonomía y atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Álava.

Espainiako Konstituzioaren 148.1.20 artikuluan xedatutakoaren arabera, autonomia erkidegoek, beren eskumenen artean, gizarte-laguntzaren arlokoak jaso ditzakete. Bestalde, abenduaren 18ko Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoak, 10.12 artikuluan, eskumen esklusiboak onartzen dizkio erkidego honi, gizarte-laguntzaren arloan. Zehatzago esanda: Autonomia Erkidegoko Osoko Erakundearen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foru erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko Eusko Legebiltzarraren 27/1983 Legeak, 7.c artikuluan, foru erakunde horiei esleitzen dizkie eskumen horiek gizarte-laguntzaren arloan.

El artículo 148.1.20º de la Constitución Española dispone que las Comunidades Autónomas podrán asumir competencias en materia de asistencia social. A este respecto, el artículo 10.12 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, incluye la asistencia social entre sus competencias exclusivas. Más específicamente, el artículo 7.c. de la Ley del Parlamento Vasco 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos últimos la ejecución de la legislación de las Instituciones Comunes en materia de asistencia social.

Eskumen horien banaketa dela eta, urriaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 5/1996 Legeak (Gizarte Zerbitzuei buruzkoa), 2. eta 3. artikuluetan, honakoa jasotzen du gizarte zerbitzuen sistemaren helburu funtsezkotzat, autonomia erkidego honen esparruan: "pertsonek eta taldeen garapen osoa eta askea, gaur egungo gizarte eredura egokitzuz". Gainera, agindu horiek sistemaren oinarri orokorrak jasotzen dituzte, eta horietan garrantzitsuena "prebentzioa, integrazioa eta normalizazioa" izenburupean dagoena da. Horren barruan, Legeak ezartzen du lehentasuna emango zaiola beregaintasuna garatzeari, eta herritarra bere inguru pertsonal, familiar eta sozialean txertatzera bideratuko direla zerbitzu horiek.

Como reflejo de esta atribución competencial, los artículos 2 y 3 de la Ley del Parlamento Vasco 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales, señalan como uno de los fines esenciales del sistema de servicios sociales, en el ámbito de esta Comunidad Autónoma, el favorecimiento del "pleno y libre desarrollo de las personas y colectivos, adecuándose para ello al modelo actual de sociedad". Además, estos preceptos enuncian los principios generales del sistema, y uno de los más importantes es el que lleva por título "prevención, integración y normalización", dentro del cual la Ley dispone que los servicios sociales se aplicarán, de forma prioritaria, a la prevención de las causas que limitan el desarrollo de una vida autónoma y se orientarán a la integración de la ciudadanía en su entorno personal, familiar y social.

Eskainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren bitartez eratu zen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Gaietarako Sailari atxikita. Bestalde, 2/2004 Foru Dekretuak, urtarrilaren 13ko Diputatuen Kontseiluarenak, sailaren Egitura eta Funtzionamenduari Arautegia onartu zuen. Horren ondorioz, gizarte zerbitzuekin zerikusia duten jarduerak antolatuz, kudeatu, prestatu eta burutzea da erakunde horren helburua, horrela baitago jasota urriaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 5/1996 Legean (Gizarte Zerbitzuei buruzkoa), Arabako foru administrazioari esleitzen dizkion eskumenetan, eta uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuan. Hori guztia azaroaren 25eko Eusko Legebiltzarraren 27/1983 Legean ezarritakoa ere kontuan hartuta.

Mediante la Norma Foral 21/1988, de 20 de junio, se constituyó el organismo autónomo Instituto Foral de Bienestar Social, adscrito al Departamento de Asuntos Sociales de la Diputación Foral de Álava, y el Decreto Foral 2/2004, del Consejo de Diputados de 13 de enero, aprobó su Reglamento de Estructura y Funcionamiento. Los fines de este organismo son la organización, gestión, prestación y ejecución de las actividades relacionadas con los servicios sociales cuya competencia se encuentra atribuida a la Administración Foral alavesa, en el marco de la Ley del Parlamento Vasco 5/1996, de 18 de octubre, de Servicios Sociales y del Decreto 155/2001, de 30 de julio, de determinación de funciones en materia de Servicios Sociales; todo ello sin perjuicio de lo dispuesto en la ya mencionada Ley del Parlamento Vasco 27/1983, de 25 de noviembre.

Ikuspegi horretatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Arabako Lurralde Historikoaren gizarte zerbitzuen sareko erakunde kudeatzaile bihurtu da; beraz, abenduaren 14ko 39/2006 Legea (Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzekoa) aplikatzeko eskumena du. Hori horrela, Legearen Hamabigarren Xedapen Gehigarriak foru aldundien berezitasunak aitortzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, horiek baitira beregaintasun pertsonalaren eta mendekotasun egoeran daudenen laguntzarako sistemaren lurralde arduradunak.

Desde esta perspectiva, el Instituto Foral de Bienestar Social se configura como el organismo gestor de la red pública de servicios sociales que existe en el Territorio Histórico de Álava y, por tanto, es el organismo competente para aplicar los contenidos de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia. En este sentido, la Disposición Adicional Duodécima de esta Ley reconoce expresamente las especificidades de las Diputaciones Forales, en el caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como entidades territoriales que forman parte del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia.

Apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen mendekotasun egoeraren balioespen baremoa, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonei Laguntzekoa) ezarritakoa. Nolanahi ere, 39/2006 Legearen 28. artikulua ez du zehatz-mehatz

Mediante el Real Decreto 504/2007, de 20 de abril, se ha aprobado el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía y Atención a las personas en situación de dependencia. Sin embargo, el artículo 28 de la Ley 39/2006 contiene unas previsiones

jasotzen nola onartu mendekotasun egoera hori, eta sistemak ematen dituen prestazioak jasotzeko eskubideen gainean ere ez du gehiegi esaten. Horretara, mendekotasun egoera onartu ahal izateko, eskatu daitezkeen prestazio eta gizarte zerbitzuak eskatu orduko, administrazio-prozedura ezarri beharko da, balioespen-eskaerak eta, hala badagokio, baliabideak esleitzea bideratu ahal izateko, pertsona bakoitzak duen mendekotasun gradua eta maila oinarri. Gainera, prozedura hori ezinbesteko da herritarrek foru administrazioarekin dituzten hartu-emanak juridikoki babesteko, eta beraz, Arabako Lurralde Historikoko antolamenduaren eta erakundeen ezaugarrietara egokitu beharko da.

Horiek horrela, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua administrazio prozedura erkidearen prozeduraren gaineko eskumen osoa aitortzen dio Estatuari; nolana ere, autonomia erkidegoek berezitasunak dituzte, beren erara antolatu daitezkeelako. Hori horrela izanik, Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.6 artikulua xedatzen du autonomia erkidego honek eskumen osoa duela "Euskal Herriak emandako zuzenbidearen berezitasunen eta bere antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu-arauetan eta administrazio-jardunbideari zein ekonomia-administrazioari dagozkion arauetan".

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) Hamaseigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat, foru aldundiak eta euren mendean dauden erakunde-administrazioak arau honen ezarpen eremuaren barruan sartzen dira, eta hori 39/2006 Legearen 28.1 artikulua berresten du. Hortaz, foru dekretu honek jasotako araudia bat dator 30/1992 Legeak adierazitako prozedura-oinarri erkideekin; nolana ere, bai gaiaren bereziaren haritik, bai Arabako Lurralde Historikoko berenezko antolaketaen haritik, baita Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko Legeak jasotzen dituen berriazko edukien haritik ere datozen berezitasunak kontuan izan beharko dira.

Halaber, 39/2006 Legearen 28.5 artikulua ondokoa jasotzen du: mendekotasun egoera onartzeko prozeduraren oinarriko irizpideak Beregaintasunerako eta Mendekoak Artatzeko Sistemaren Prestazioetarako Lurralde-Kontseiluak ezarri behar dituela. Dena den, kontseilu horrek ez ditu oraindik hartu beharreko erabakiak hartu. Euskal Autonomia Erkidegoan, gainera, ez dago gai hau arautzen duen araudirik. Ondorioz, arautegi honen bidez Arabako Foru Aldundiak araugintzan dagoen hutsunea konpontzeaz gain, sistema hori lurralde historiko honetan lehenbailehen indarrean sartzeko beharrezkoa den prozedurarako tresna ezartzen du.

Ekainaren 20ko 21/1998 Foru Arauaren 5. artikulua xedatzen duenarekin bat (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamendua arautzeko Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 13ko 2/2004 Foru Dekretuaren 8.h) artikulua xedatutakoarekin zerikusia du), erakunde autonomo honen Administrazio Kontseiluak, 2007ko apirilaren 24an egindako ezohiko bilkuran, ontzat eman du Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera onartzeko administrazio prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntza onartzen duen Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluak azter dezan.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 7. artikulua Diputatuen Kontseiluari eskumena ematen dio arauetarako ahalmena baliatzeko, foru arauak, autonomia erkidegoetako legeak eta Estatuarenak garatze aldera.

Horren guztiaren ondorioz, Gizarte Gaietarako Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren,

escasas y demasiado genéricas sobre el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia y del derecho a las prestaciones del sistema. De modo que la tramitación de este reconocimiento, como paso previo para acceder a las prestaciones y servicios sociales correspondientes, requiere el desarrollo de un procedimiento administrativo, que sirva de cauce a las solicitudes de valoración y, en su caso, a la asignación de recursos, según el grado y nivel de dependencia de cada persona. Por otra parte, este procedimiento es una exigencia de seguridad jurídica en las relaciones de la ciudadanía con la Administración Foral y debe adaptarse a las características organizativas e institucionales del Territorio Histórico de Álava.

Desde esta perspectiva, el artículo 149.1.18º de la Constitución Española reconoce al Estado la competencia exclusiva sobre el procedimiento administrativo común, "sin perjuicio de las especialidades derivadas de la organización propia de las Comunidades Autónomas". Sobre esta base, el artículo 10.6 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco dispone que esta Comunidad Autónoma tiene competencia exclusiva sobre las "normas procesales y de procedimientos administrativos y económico administrativos que se deriven de las especialidades del derecho sustantivo y de la organización propia del País Vasco".

Conforme a lo establecido en la Disposición Adicional Decimosexta de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (reformada por la Ley 4/1999, de 13 de enero), las Diputaciones Forales y las Administraciones Institucionales de ellas dependientes se encuentran incluidas en el ámbito de aplicación de esta norma, lo cual es corroborado en el artículo 28.1 de la Ley 39/2006. Por ello, la regulación contenida en el presente Decreto Foral se ajusta a las bases procedimentales comunes que señala la mencionada Ley 30/1992, sin perjuicio de las peculiaridades que necesariamente deben incorporarse, derivadas todas ellas de la especialidad que caracteriza la materia, la organización institucional propia del Territorio Histórico de Álava e, incluso, de los contenidos específicos que figuran en la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las Personas en Situación de Dependencia.

Asimismo, debe destacarse que el artículo 28.5 de la Ley 39/2006 prevé que los criterios básicos del procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia sean acordados por el Consejo Territorial del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia. Sin embargo, este Consejo todavía no adoptado los acuerdos correspondientes. Tampoco existe normativa autonómica en el ámbito del País Vasco que regule esta materia. En consecuencia, mediante el presente reglamento la Diputación Foral de Álava soluciona el vacío normativo existente y arbitra el instrumento procedimental necesario para que el mencionado Sistema tenga plena vigencia sin dilación alguna en este Territorio Histórico.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 5 de la mencionada Norma Foral 21/1988, de 20 de junio, puesto en relación con el artículo 8.h) del Decreto Foral 2/2004, del Consejo de Diputados de 13 de enero, que aprueba el Reglamento de Estructura y Funcionamiento del Instituto Foral de Bienestar Social, el Consejo de Administración de este organismo autónomo, en sesión extraordinaria celebrada el 24 de abril de 2007, ha dado su visto bueno al proyecto de Decreto Foral por el que se aprueba el procedimiento administrativo para el reconocimiento de la situación de dependencia, el derecho y el acceso a los servicios del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia en el Territorio Histórico de Álava, a efectos de que sea elevado al Consejo de Diputados para su consideración.

El artículo 7 de la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, atribuye al Consejo de Diputados la competencia para ejercer la potestad reglamentaria, en desarrollo de las Normas Forales, las Leyes de las Comunidades Autónomas y las del Estado.

En virtud de todo lo anterior, a propuesta de la Diputada Foral titular del Departamento de Asuntos Sociales, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

XEDATU DUT:

Lehenengo. Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera onartzeko administrazio prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntza onartzea, honekin batera doan artikulutestuetan jasotakoaren arabera.

Bigarren. Foru dekretu honen aurka doazen maila bereko edo apalagoko arauak indargabetzea.

Hirugarren. Foru dekretu honek onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean geroago argitaratu arren. Aldi baterako xedapenek ezarritakoa ere kontuan hartuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko apirilaren 24a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Gizarte Gaietarako Saileko foru diputatua, AINHOA DOMAICA GOÑI.- Gizarte Gaietarako zuzendaria, JUAN FRANCISCO SANDÍN RAMOS.

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN MENDEKOTASUN EGOERA ONARTZEKO ADMINISTRAZIO PROZEDURA, BEREGAIN IZATEN LAGUNTZEN DUEN SISTEMAREN ZERBITZUAK JASOTZEKO ESKUBIDEA ETA ERA, ETA MENDEKOEI ESKAINI BEHARREKO LAGUNTZAK

1. artikulua.- Aplikazio eremua eta araudia.

1. Arautegi honek ondorengoak arautzen ditu: Arabako Lurralde Historikoan mendekotasun egoera onartzeko administrazio prozedura, beregain izaten laguntzen duen sistemaren zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta era, eta mendekoei eskaini beharreko laguntzak.

2. Arautegi honek berariaz xedatzen ez dituen guztietan Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea aplikatuko da.

LEHENENGO KAPITULUA: PROZEDURAREN HASIERA

2. artikulua.- Eskabideak aurkeztea.

1. Prozedura pertsona interesatuak eskatzen duenean hasiko da. Horretarako, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailtzan eskabidea aurkeztuko du. Eskabide hori aurkeztutakoan, erakunde autonomiadun honek bere kabuz emango dio hasiera prozedurari.

2. Eskabideak aurkezteko, eredu ofiziala beteko da eta arautegi honetako I. Eranskinean argitaratzen diren jarraibideak hartuko dira kontuan.

3. Eskabideak eskatzailea erroldatuta dagoen udalerriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztuko dira. Eskatzailea Vitoria-Gasteizen bizi bada, eskabideak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen menpe dauden bi leku hauetan aurkez daitezke: Informazio eta Gizarte Arretarako Bulegoan edo Orientazio eta Balioespen Zentroan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaz gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikuluan ezarritako gainerako prozedurak ere erabili ahal izango dira eskabideak aurkezteko.

4. Hona nortzuk aurkez dezaketen eskabidea:

- zuzenean, eskatutako gizarte baliabidea eskuratu nahi duen pertsonak berak,
- haren ordezkariak,
- edo egitatezko zaintzan jarduten dutenek.

3. artikulua.- Agiriak.

Eskabidearekin batera honako agiriak aurkeztuko dira:

- Eskatzailearen NANaren fotokopia edo, halakorik ez dagoenean, eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko indarreko legeriak xedatzen duen beste edozein agiri ofizialena.

- Hala badagokio, pertsona interesdunari dagokionez eskaera aurkezten duen pertsonak daukan legezko ordezkari egiaztatzeko agiriak.

- Legezko ordezkari edo egitatezko zaintza duenaren NAN/AIZ/pasaportean fotokopia.

- Osasun Sistema Publikoak emandako osasun txostena, edo bestela, ondorengoek beren onuradunentzako hitzartutako osasun zerbitzuek emandakoa: Estatuko Administrazio Orokorren

DISPONGO:

Primero. Aprobare el Procedimiento administrativo para el Reconocimiento de la Situación de Dependencia y del derecho a las Prestaciones del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, en el Territorio Histórico de Álava, en los términos del texto articulado que adjunto se acompaña.

Segundo. Derogar las normas de igual o inferior rango que se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto Foral.

Tercero. El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su aprobación, sin perjuicio de su posterior publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, y sin perjuicio de lo establecido en las Disposiciones Transitorias.

Vitoria-Gasteiz, a 24 de abril de 2007.- Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.- Diputada Foral de Asuntos Sociales, AINHOA DOMAICA GOÑI.- Director de Asuntos Sociales, JUAN FRANCISCO SANDÍN RAMOS.

PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO PARA EL RECONOCIMIENTO DE LA SITUACION DE DEPENDENCIA, EL DERECHO Y EL ACCESO A LOS SERVICIOS DEL SISTEMA PARA LA AUTONOMÍA Y ATENCIÓN A LA DEPENDENCIA EN EL ÁMBITO DEL TERRITORIO HISTORICO DE ÁLAVA

Artículo 1.- Ámbito de aplicación y normativa aplicable.

1. El presente Reglamento regula el procedimiento administrativo para reconocer la situación de dependencia, el derecho y el acceso a los servicios del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, en el ámbito del Territorio Histórico de Álava.

2. Será de aplicación supletoria la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en todo lo que no prevea expresamente el presente Reglamento.

CAPÍTULO PRIMERO: INICIO DEL PROCEDIMIENTO

Artículo 2.- Presentación de solicitudes.

1. El procedimiento se iniciará mediante solicitud de la persona interesada, que se dirigirá a la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social. Una vez presentada, el procedimiento se impulsará de oficio por este Organismo Autónomo.

2. Las solicitudes deberán ser cumplimentadas en el modelo oficial y conforme a las instrucciones que aparecen publicadas en el Anexo I de este Reglamento.

3. Las solicitudes se presentarán en el Servicio Social de Base del municipio correspondiente al domicilio de la persona solicitante. En caso de que la persona solicitante se encuentre domiciliada en Vitoria-Gasteiz, se presentarán en la Oficina de Información y Atención Social o en el Centro de Orientación y Valoración, ambos pertenecientes al Instituto Foral de Bienestar Social.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, las solicitudes también podrán presentarse a través de los restantes procedimientos que prevé el artículo 38 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4. Estarán legitimadas para presentar la solicitud:

- directamente, la propia persona que pretenda acceder al recurso social demandado,
- o bien quien tenga atribuida su representación,
- o bien quienes, en su caso, ejerzan su guarda de hecho.

Artículo 3.- Documentación.

Junto con la solicitud se presentará la siguiente documentación:

- Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o, en su defecto, de cualquier otro documento oficial que acredite la identidad de la persona solicitante conforme a la legislación vigente.

- En su caso, la documentación acreditativa de la representación legal que tenga atribuida la persona que presente la solicitud con respecto a la persona interesada.

- Fotocopia del DNI/NIE/Pasaporte del representante legal o guardador/a de hecho.

- Informe de salud expedido por el Sistema Público de Salud o por los servicios de salud concertados por la Mutuality de Funcionarios Civiles del Estado (MUFACE), el Instituto Social de las

Mutualitateak (MUFACE), Indar Armaturen Gizarte Erakundeak (ISFAS) edo Mutualitate Judizial Orokorrak (MUGETU).

- Udaleko errolda agiria, Beregintasan Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak 5.1 artikuluan adierazitako epea egiaztatzen duena. Errolda agiri hori aurkeztuko da baldin eta artikuluko horrek aipatzen dituen epe eta egoeretan eskatzailea Arabako Lurralde Historikotik kanpoko udalerrietan bizi izan bada.

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako ziurtagiria, eskatzaileak onartuta daukan ezintasun oso larriaren osagarria egiaztatzen duena Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz, datu hori mendekotasun egoera balioesteko adierazgarria denean. Balioesteko adierazgarritasuna honakoari jarraituz hartuko da kontuan: Beregintasan Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezartzen duen mendekotasun egoera balioesteko baremoa onartzen duen apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 1 puntuari jarraituz.

- Arabako Lurralde Historikotik kanpo beste pertsona batek laguntzeko premiaren osagarria (Ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskinean dator zehaztuta) onartuta izanez gero, eskatzaileak hirugarren pertsona baten beharra zehazteko baremoan lortutako puntuazioaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, hori dena, apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 2. puntuari jarraituz.

BIGARREN KAPITULUA: ESPEDIENTEAREN INSTRUKZIOA

4. artikulua.- Eskabidea egiaztatzea eta zuzenketak egitea.

1. Eskabidea jaso ondoren, oinarrizko gizarte zerbitzuak edo, bestela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berak espedienteari hasiera emango dio, eskabide hori behar bezala beteta dagoela egiaztatuta.

2. Aurkeztutako eskabidea osorik bete gabe bada edo arategi honetako 3. artikuluan aipatutako agiriren bat falta bada, oinarrizko gizarte zerbitzuak edo, bestela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskabidea 10 egun baliodunean osatu edo zuzen dezala eskatuko dio eskatzaileari. Epe hori jakinarazpena jasotzen den egunean hasiko da. Administrazioak egindako eskaera horretan berariaz adieraziko da aipatutako epea agortu eta zuzenketak egin gabe badaude eskabidea bertan behera utzi dela eta besterik gabe artxibatuko dela, erakunde autonomiadunak horretarako ebazpena eman ondoren.

3. Eskabidean edo horrekin batera aurkeztu beharreko agirietan datuak edo informazioa ezkutatu edo faltsutzea nahikoa arrazoi izango da mendekotasun egoera ez onartzeko.

5. artikulua.- Mendekotasuna balioesteko zita jakinaraztea.

Eskabidea onartu ondoren, oinarrizko gizarte zerbitzuak edo, bestela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berak idatziz jakinaraziko dio eskatzaileari langile teknikaria, erakunde autonomiadunaren behar bezalako kreditazioa duela, zein egunetan eta ordutan joango zaion etxera mendekotasunaren balioespena egitera, Beregintasan Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako mendekotasun egoeraren balioespen baremoa onartzen duen apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraituz.

6. artikulua.- Informazioa eskatzea.

1. Dagokion oinarrizko gizarte zerbitzuak edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak prozeduraren edozein fasetan eska diezaioke eskatzaileari jakinarazpena jasotzen duenetik 10 egun balioduneko epean espedientea ebazteko beharrezko den informazio eta agiri oro emateko.

Fuerzas Armadas (ISFAS) o por la Mutualidad General Judicial (MUGEJU) para sus personas beneficiarias.

- Certificado municipal de empadronamiento, acreditativo del plazo al que se refiere el apartado 1 del artículo 5 de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía y Atención a las personas en situación de dependencia, en aquellos casos en los que la persona solicitante haya residido en municipios de fuera del Territorio Histórico de Álava durante el plazo y en las condiciones a que se refiere ese artículo.

- Certificado expedido por el Instituto Nacional de la Seguridad Social, acreditativo del complemento de gran invalidez que tenga reconocido la persona solicitante, conforme a lo dispuesto en el Real Decreto Legislativo 1/1994, de 20 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, en los casos en que este dato pueda ser relevante para la valoración de la situación de dependencia, conforme a lo dispuesto en el punto 1 de la Disposición Adicional Primera del Real Decreto 504/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía y Atención a las personas en situación de dependencia.

- En el caso de tener reconocido fuera del Territorio Histórico de Álava el complemento de necesidad del concurso de otra persona, determinado según el Anexo 2 del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de minusvalía, la persona solicitante deberá aportar la documentación acreditativa de la puntuación obtenida en el baremo para determinar la necesidad de Ayuda de Tercera Persona, todo ello conforme a lo dispuesto en el punto 2 de la Disposición Adicional Primera del mencionado Real Decreto 504/2007, de 20 de abril.

CAPÍTULO SEGUNDO: INSTRUCCIÓN DEL EXPEDIENTE

Artículo 4.- Verificación y subsanación de la solicitud.

1. Recibida la solicitud, el Servicio Social de Base correspondiente o, en su caso, el propio Instituto Foral de Bienestar Social, iniciará la tramitación del expediente verificando si aquella está debidamente cumplimentada.

2. En caso de que la solicitud se hubiera presentado incompleta o faltara alguno de los documentos referidos en el artículo 3 del presente Reglamento, el Servicio Social de Base o, en su caso, el Instituto Foral de Bienestar Social, requerirá a la persona solicitante la subsanación de tales defectos en el plazo de 10 días hábiles a contar desde que reciba la notificación. Este requerimiento indicará expresamente que si, transcurrido este plazo, no se hubieran subsanado los defectos, se tendrá por desistida la solicitud y se archivará sin más trámite, previa resolución dictada por el Organismo Autónomo a tal efecto.

3. La ocultación o la falsedad de los datos o informaciones que deban figurar en la solicitud o en los documentos que la acompañen podrán ser consideradas causa suficiente para denegar el reconocimiento de la situación de dependencia.

Artículo 5.- Comunicación de la cita para la valoración de la dependencia.

Recibida la solicitud, el Servicio Social de Base correspondiente o, en su caso, el propio Instituto Foral de Bienestar Social, comunicará por escrito el día y la hora en la que personal técnico, debidamente acreditado por este Organismo Autónomo, acudirá al domicilio de la persona solicitante a realizar la valoración de la dependencia conforme a lo establecido en el Real Decreto 504/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía y Atención a las personas en situación de dependencia.

Artículo 6.- Requerimientos de información.

1. En cualquier fase del procedimiento, tanto el Servicio Social de Base correspondiente como el Instituto Foral de Bienestar Social podrán requerir a la persona solicitante que aporte, en el plazo de 10 días hábiles a contar desde que reciba la notificación, cuanta información y documentos puedan ser necesarios y pertinentes para resolver el expediente.

Administrazioak egindako eskaera horretan berariaz adieraziko da aipatutako epea agortu eta informazioa eman ezean edo informazio hori emateko ezintasuna behar bezala arrazoitu ezean, eskabidea bertan behera utziko dela eta besterik gabe artxibatuko dela, erakunde autonomiadunak horretarako ebazpena eman ondoren.

2. Eskabidean jasotzen den baimenari jarraituz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak espediente bideratzeko beharrezko diren datuak eta informazioak eskuratu ahal izango ditu bere kabuz beste administrazio publikoengandik. Baimen hori eman ezean, erakunde autonomiadunak datu horiek emateko eskatu ahal izango dio eskatzaileari, aurreko zenbakian jasotako baldintzetan.

HIRUGARREN KAPITULUA: MENDEKOTASUNA BALIOESTEA

7. artikulua.- Balioespen irizpideak.

Balioespen irizpideak Beregaintasun Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran bizi diren Pertsonen Laguntzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako mendekotasun egoeraren balioespen baremoa onartzen duen apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan jasotzen dira.

8. artikulua.- Etxean egindako balioespena.

Eskabidea eta eranskinak egiaztatu ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak balioespena egingo du mendekotasun egoera onartzeko eskatzen duen pertsona bizi den lekuan.

9. artikulua.- Balioespen organoa.

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Elbarrien Arloko Zuzendariordetza Teknikoari atxikitako Orientazio eta Balorazio Zentroko teknikari espezializatuak egingo du.

2. Balioespen organoak bere lan espezialitatearen arloan beharrezko iruditzen zaizkion azterketak, elkarriketak eta gainerako probak egingo ditu eskabideak ebaluatzeko. Era berean, beharrezko ikusiz gero, beste organismo eta profesional batzuei laguntza eska diezaike balioespena egin ahal izateko.

3. Balioespena egin ondoren, organoak irizpen teknikoa emango du. Irizpen horretan balioespenari buruzko alderdi guztiak zehaztuko ditu.

LAUGARREN KAPITULUA: MENDEKOTASUN EGOERA ONARTZEA

10. artikulua.- Ebazpen proposamena.

1. Balioespen organoaren irizpen teknikoa jaso ondoren, Elbarrien Arloko Zuzendariordetza Teknikoak ebazpen proposamena egingo du, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzara bidali.

2. Ebazpen proposamenak honako alderdiak jasoko ditu:

- Mendekotasun gradua eta maila.
- Mendekotasun egoeraren behin-behineko edo behin betiko izaera.

- Berrikuspenaren data, hala behar izanez gero.

- Proposatutako mendekotasun graduari eta mailari dagozkien baliabideak.

11. artikulua.- Ebazpena.

1. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-Kudeatzailetzari dagokio eskatzailearen mendekotasun egoerari buruzko ebazpenak emateko eskumena.

2. Ebazpena emateko eta eskatzaileari jakinarazteko 3 hilabete izango dira gehienez, eskabidea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan edo Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen jasotzen denetik aurrera. Epe zenbaketa horretarako, ez da kontuan hartuko espediente etenda dagoen denbora, baldin eta etete horren arrazoiak eskatzaileari bada-gozkio.

3. Ebazpenaren arrazoiak emango dira, baita alderdi hauen inguruko irizkiak jasoko ere:

- Mendekotasun gradua eta maila.

- Mendekotasun egoeraren behin-behineko edo behin betiko izaera.

- Berrikuspenaren data, hala behar izanez gero.

Este requerimiento indicará expresamente que si, transcurrido el plazo que señala el párrafo anterior, no se aportara la información o bien no se justificara razonablemente la imposibilidad de aportarla, se tendrá por desistida la solicitud y se archivará sin más trámite, previa resolución dictada por el Organismo Autónomo a tal efecto.

2. Conforme a la autorización que figura en la solicitud, el Instituto Foral de Bienestar Social podrá acceder de oficio a los datos e informaciones que obren en poder de otras Administraciones Públicas, cuyo conocimiento sea necesario para tramitar el expediente. En caso de que no se preste dicha autorización, el Organismo Autónomo podrá requerir a la persona solicitante que aporte tales datos, en los términos previstos en el número anterior.

CAPÍTULO TERCERO: VALORACIÓN DE LA DEPENDENCIA

Artículo 7.- Criterios de valoración.

Los criterios técnicos de valoración serán los que figuran en el Real Decreto 504/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía y Atención a las personas en situación de dependencia.

Artículo 8.- Valoración en el domicilio.

Completada la verificación de la solicitud y sus documentos anejos el Instituto Foral de Bienestar social deberá realizar la valoración en el domicilio donde viva la persona para la que se solicita el reconocimiento de la situación de dependencia.

Artículo 9.- El órgano de valoración.

1. La valoración de la situación de dependencia será realizada por el personal técnico especializado del Centro de Orientación y Valoración, adscrito a la Subdirección Técnica del Área de Personas con Discapacidad del Instituto Foral de Bienestar Social.

2. El órgano de valoración podrá efectuar los reconocimientos, entrevistas y demás pruebas que, de acuerdo con su especialidad profesional, considere necesarias para evaluar las solicitudes. Asimismo, podrá recabar la colaboración de otros organismos y profesionales, si lo estimare pertinente, para realizar su función valoradora.

3. Una vez realizada la valoración, el órgano emitirá un dictamen técnico en el que se deben detallar todos los aspectos relativos a dicha valoración.

CAPÍTULO CUARTO: RECONOCIMIENTO DE LA SITUACIÓN DE DEPENDENCIA

Artículo 10.- La propuesta de resolución.

1. Recibido el dictamen técnico del órgano de valoración, la Subdirección Técnica del Área de Personas con Discapacidad elaborará una propuesta de resolución, que elevará a la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social.

2. La propuesta de resolución contendrá los siguientes aspectos:

- Grado y nivel de dependencia.
- Carácter provisional o definitivo de la situación de dependencia.

- Fecha de revisión en su caso.

- Catálogo de recursos que corresponden al grado y nivel de dependencia propuestos.

Artículo 11.- Resolución.

1. Corresponde a la Dirección-Gerencia del Instituto Foral de Bienestar Social la competencia para resolver sobre la situación de dependencia de la persona solicitante

2. La resolución deberá dictarse y notificarse a la persona solicitante en el plazo máximo de 3 meses, a contar desde la recepción de la solicitud en el Servicio Social de Base o en el Instituto Foral de Bienestar Social. No se computará a estos efectos el período de tiempo durante el cual el expediente se encuentre paralizado por causas imputables a la persona solicitante.

3. La resolución deberá ser motivada y se pronunciará sobre los siguientes extremos:

- Grado y nivel de dependencia.

- Carácter provisional o definitivo de la situación de dependencia.

- Fecha de revisión en su caso.

- Proposatutako mendekotasun graduari eta mailari dagozkien baliabideak.
- Beharrezko justifikazioa, ebazpen proposamenetik aldentzen bada.

BOSGARREN KAPITULUA: BANAKAKO ARRETA PLANA (BAP)

12. artikulua.- Erreferentziako profesionala.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak mendekotasun egoera onartuta duten pertsona bakoitzari erreferentziako gizarte langile bat esleituko die. Erreferentziako profesional honek Banakako Arreta Plana (BAP) egingo du mendekotasun egoeran dagoen pertsonarentzako

13. artikulua.- Banakako Arreta Plana (BAP) egitea.

1. Mendekotasuna duen pertsonak edo, beharrezkoa denean, arautegi honetako 2.4 artikuluan aipatutakoren batek honako agiriak aurkeztuko ditu erreferentziako profesionalak eskatzen dionean:

- Eskatu den baliabidea eskuratu ahal izateko zenbatzen den elkarbizitza unitateko kide bakoitzaren Nortasun Agiri Nazionalaren edo halakorik izan ezean, nortasuna egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizialen fotokopia.

- Sarrerei eta ondasunei buruzko zinpeko aitortpena. Horretarako, arautegi honetako II. eranskinean jasotzen den araututako eredia beteko da.

- Arautegi honetako III. eranskinean adierazten diren zerga datuak eskuratzeko baimena.

- Beharrezko izanez gero, Arabako Lurralde Historikotik kanpoko ondasunen titularitatea egiaztatzen duten agiriak.

2. III. eranskinean jasotzen den baimena formalizatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak espediente bideratzeko beharrezko diren datuak eta informazioak eskuratu ahal izango ditu bere kabuz beste administrazio publikoengandik. Baimen hori eman ez bada, erakunde autonomiadunak datu horiek emateko eska diezaiokete mendeko pertsonari.

3. Artikulu honetako 1. puntuan aipatutako agiriren bat edo horiek osorik aurkeztu ezean, oinarritzko gizarte zerbitzuak edo, bestela, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 10 egun baliadunearan aurkez ditzala eskatuko dio eskatzaileari. Epe hori jakinarazpena jasotzen den egunean hasiko da. Administrazioak egindako eskaera horretan berriaz adieraziko da aipatutako epea agortu eta zuzenketak egin gabe badaude mendekoak gizarte baliabidea emateko prozedura bertan behera utzi duela eta besterik gabe artxibatuko dela, erakunde autonomiadunak horretarako ebazpena eman ondoren.

4. Artikulu honetako 1. puntuan adierazitako agiriak jaso eta aztertu ondoren, erreferentziako profesionalak elkarrizketa bat izango du mendeko pertsonarekin, edo hala badagokio, arautegi honetako 2.4 artikuluan adierazten diren pertsonetako batekin. Elkarrizketa horretan, azaldu den arazoari eta onartutako mendekotasunaren gradu eta mailari gehien egokitzen zaizkien laguntza motak proposatuko dira.

5. Erreferentziako profesionalak Banakako Arreta Plan (BAP) bat egingo du mendeko pertsonaren, familiaren, tutorearen edo mendekoaren ordezkatzela-lanak dituen tutoretza-erakundearen partaidetzarekin. Horretarako, kontsultak egingo zaizkie eta, hala badagokio, proposatutako aukeren artean bat hautatuko dute.

Honako alderdiak jasoko ditu BAPak:

- mendeko pertsonaren egoera sozialari eta familia egoerari buruzko txostena.

- hautatutako gizarte zerbitzua(k).

- hautatutako zerbitzua eskuratzeko ezinezko denean aldi baterako aplikatuko den gizarte zerbitzua edo prestazio ekonomikoa.

6. BAPa egin ondoren, erreferentziako profesionalak espediente osoa bidaliko dio Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen Gizartegintza Arloko Zuzendariordetza Teknikoari berrazter dezan. Zuzendariordetza tekniko horrek proposatutako BAPari oniritzia emanez gero, hautatutako

- Catálogo de recursos que corresponden al grado y nivel de dependencia propuestos.

- Justificación pertinente, si se aparta de la propuesta de resolución.

CAPÍTULO QUINTO: PLAN INDIVIDUALIZADO DE ATENCIÓN (P.I.A.)

Artículo 12.- Profesional de referencia.

El Instituto Foral de Bienestar social asignará un/a trabajador/a social de referencia a cada una de las personas a quienes se le reconozca la situación de dependencia. Este profesional de referencia elaborará el Plan Individualizado de Atención (P.I.A.) para la persona dependiente.

Artículo 13.- Elaboración del Plan Individualizado de Atención (P.I.A.).

1. La persona dependiente o, en su caso, alguna de las que se mencionan en el artículo 2.4 del presente Reglamento, deberá presentar a requerimiento del profesional de referencia la siguiente documentación:

- Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o, en su defecto, de cualquier otro documento oficial que acredite la identidad de cada miembro de la unidad convivencial que se compute para acceder al recurso solicitado, todo ello conforme a la normativa vigente.

- Declaración jurada de ingresos y bienes, cumplimentada en el modelo normalizado que figura en el Anexo II del presente Reglamento.

- Autorización de acceso a datos fiscales Anexo III del presente Reglamento.

- En su caso, la documentación acreditativa de la titularidad de bienes radicados fuera del Territorio Histórico de Álava.

2. Formalizada la autorización que figura en el Anexo III del presente Reglamento, el Instituto Foral de Bienestar Social podrá acceder de oficio a los datos e informaciones que obren en poder de otras Administraciones Públicas, cuyo conocimiento sea necesario para tramitar el expediente. En caso de que no se preste dicha autorización, el Organismo Autónomo podrá requerir a la persona dependiente que aporte tales datos.

